



(martxo - marzo)

Txiroekin, txirotasunaren aurka.

Hauxe inoan Paulo VI.ak amaierako berbaldian, 1965.eko abenduaren 8an:

"Samariarraren istorio zaharra izan da Kontzilioaren espirtualtasunaren oinarria. Egundoko begikotasunak dana zeharkatu dau. Giza beharrezanez jaubetzea... izan da gure arreta-gune nagusia".

Oinazetan dagozan guztien artean, txirokek, gaur egun, askatasunez onartutako giza egite edo ez-egiteengaitik sufritzen dabe. Kontzilioak salatu egiten dau eta bide barria zabaltzen deutso kristianu guztien alkartasunari, betiko eragile ebanjelikoekin baina garrantzi eraldatzaile handiagoagaz.

irakurketa eta alkarriketarako gida

↪ Saiatu testuak "aurre-erexi" barik irakurten, arretaz jaso eurek dinoena. ↪

1. Benetan, gure artean, antzematen da fedearen eta justiziaren arteko artikulazino hori ala, aldiz, "banandutako" errealidadeak ete dira? Zure ustez, honek badau ondoriorik gizartean dogun presentziarako?, eta gure sinisgarritasunerako?



2. Baloratu gure gaur egungo eliz jarduerak zenbateraino dagozan hurbil ala urrun irakurritako baieztapenetatik... eta ez joan "urrunegi" azterketan... zeure jarduerak eta ingurukoak kontuan hartu...



3. Ekimenen bat aditzera emon gura badozu edo ezagutarazotea merezi dauan egiteren bat ezagutzen badozu, hauxe da zure aukera.





Lumen Gentium (LG) Elizari buruzko Konstituzino dogmatikoa, 1964.eko azaroaren 21a

8. Kristo «behartsuei Berri Ona adieraztera... bihotz urratuak sendatzera» (Lk 4, 18) bidali zuen Aitak, «galdua zegoena bilatzera eta salbatzera» (Lk 19, 10); **Elizak ere maitasunez besarkatzen ditu giza ahultasunaren mendean nahigabez daudenak; are-ago oraindik, behartsu eta nahigabetuengan bere Fundatzaile behartsu eta nahigabetuaren irudia aurkitzen du; haien miseria arintzeaz arduratzen da eta haiengan Kristori zerbitzatzea bilatzen du.**

bere Fundatzailearen irudia

"Azken auziaren" parabolan agertzen dan lez, "nire anai honeetariko txikiren bati egin zeuntsena, neuri egin zeunsten" (Mt 25, 31-46).

42. Kristinau guztiak daude, beraz, santutasunera eta beren bizieraren perfekziora jotzera deituak eta behartuak. **Saia bitez, bada, guztiak beren gurariak zuzen bideratzen, mundu honetako gauzen erabilerak eta aberastasunen atxikimenduak, Ebanjelioko pobretasun-espirtuaren kontrakoa izanik, ez diezaien eragotz maitasunik handiena lortzea.** Apostoluak ohar hau egiten die: mundu honetako gauzak erabiltzen dituztenak ez bitez horretan geldī, iragankorra baita mundu honen irudia.

(ik. 1 Kor 7,31 gr).

Guztiak

Santutasuna ez da batzuen kontua, ba-teatu guztientzako perfekzioa baino. Jesukristogaz bat egitearen osotasuna da. Arreta berezia jarritz bizimodu soilean eta gauzen eta diruaren metaketa barik.

Apostolicam Actuositatem (AA) Laikoen apostolutzari buruzko dekretua, 1965.eko azaroaren 18a

8. Karitatezko jarduera hau salbuespen ororen gain egon eta hala ager dadin...; beharrezko da, beste ezer baino lehen, justiziaren eskakizunak betetzea, **zor dena karitatezko laguntza balitz bezala ez emateko; gaitzaren sustraiak kentzea, eta ez bakarrik ondorioak, eta laguntzak ematea ongi antolatzea, haiek jasozten dituztenak kanpokoan pentzudan egotetik apurka-apurka askatuz eta beren artean konponduz joan daitezten.**

zor dena

Laguntza hutsa gainditu eta urratsa emotea da. Txiroen eskubideei lotuta dagozan justiziaren eskakizunak bete egin behar dira eta karidadeak ezin dau hori ezkutatu edo zurlitu.

sustraiak

Bidebakokerien biktimen aldeko arretea ahaztu barik, ha irauarazoten daben egiturak (legeak, akordioak, sistematik, dinamikak...) aldatu egin behar dira.

pentzudan egotea

"Laguntzak" kanpokoan 'pentzudan egotea' ekarri daike eta horrek, epe ertain eta luzera, eragina izango leuke hartzaileen duintasun eta askatasunean.

1968an, Paulo VI.ak Hego Amerikako Gotzainen Batzar nagusiari hasierara emon eutsan Medellinen. Batzar hau eragile garrantzitsua izan zan kontzilioa fede eta justiziaren ikuspuntu-tik jasoterakoan.





Gaudium et Spes (GS) *Eliza gaurko munduan Konstituzino pastoralak, 1965.eko abenduaren 7a*

29. Gainera, gizakien artean bidezko ezberdintasunak badira ere, pertsonen duintasun berdinak eskatzen du bizitzaren egoera gizatiar eta zuzenagora iristea. Izan ere, **giza familia bakarreko kide edo herrien artean gertatzen diren ezberdintasun ekonomiko eta sozial handiegiak gaizpidea dakarte** eta gizarteko justiziaren, zuzentasunaren, pertsonaren duintasunaren aurka doaz eta baita gizarteko eta nazioarteko bakearen aurka ere.

37. Baina Eskritura Santuak, eta honekin bat dator mendeetako esperientzia, hau irakasten dio giza familiari: gizakiarentzat guztiz onuragarria bada ere, giza aurrerapenak **tentaldi handi bat ere badakarrela berekin: balioen hurrenkera azpikoz gora jarritz eta ona eta txarra nahasiz, gizabanakoek eta taldeek nork bere interesak soilik eta ez besteenak begiratzeko tentaldia. Horrek mundua jada benetako senidetasun-lekua ez izatea dakar**, gizadiaren botere gehiagotuak giza arraza bera galtzeko arriskuan jartzen duen bitartean.

giza arraza bera galdu

Une haretan arrisku "nuklearraren" salaketa nabaria zan, gerra hotzeko tes-tuinguruan. Gaur, arrisku "ekologikora" zabalduko geunke.

69. Jainkoak lurra eta bertan dagoen oro gizaki eta herri guztientzat zuzendu du; beraz, ondasun kreatuek guztiengana iritsi behar dute egoki den moduan, zuzentasuna gidari eta maitasuna lagun direla. Direnak direla jabetza motak, herrietako legezko erakundeetara egokituak, egoera ezberdin eta aldakorren arabera, beti kontuan hartu behar da ondasunen xede unibertsala. Beraz, **gizakiak, ondasun horiek erabiltzean, eskubidez dituen kanpoko gauzak, bereak soilik balira bezala ez, baizik eta guztienak balira bezala hartu behar ditu, hau da, bere onerako bakarrik ez, baizik eta besteen onerako direla pentsatuz.**

ondasunen xede unibertsala

Moral sozialean ohikotasunez erabilten dan esaldia. Ondasunak ez dira norbere onerako bakarrik, guztientzat dira.

72. Kristori men eginez, gauza guztien gainetik Jainkoaren erreinua bilatzen duen orok, **beren senide guztiei laguntzeko eta karitateak argi eginda zuzentasun-lana** aurrera eramateko **maitasun sendoagoa eta garbiagoa lortzen du hortik.**

karidadeak argi eginda zuzentasun-lana

Faltsutuko ez badira, ezin dira banandu. Justiziak eta karidadeak ezinbesteko dabe alkar, eta kristinautasunean batak ezin dau bestea baztertu.



OTOITZ EGIN

EZ DUZU ESKURIK

Jesus ez duzu eskurik.
Gure eskuak bakarrik dituzu
Zuzentasuna nagusi den mundu bat eraikitzeko.

Jesus ez duzu oinik.
Gure oinak baino ez dituzu
askatasuna eta maitasuna martxan jartzeko.

Jesus ez duzu ezpainik.
Gure ezpainak baina ez dituzu
pobreen Berri Ona munduari iragartzeko.

Jesus ez duzu baliabiderik.
Guztiok anai arreba izateko
gure ekintza baino ez duzu.

Jesus, geu gara zure Ebanjelioa,
jendeak irakurri ahal duen Ebanjelio bakarra,
gure bizitzak ekintza eta hitz eraginkorrak baitira.

Jesus emazkiguzu zure maitasuna eta kemena
zure ekimena jarraitzeko
eta ahal dugun guztiei zure ezaguera emateko.



*Paulo VI.ak 1964ko abenduan bisitatu eban India eta guztiz hunkituta geratu zan hango miseria ikusita.
Argazkian, Kalkutako Ama Teresa ondoan dauala.*



Argazkian, El Salvadorren hil ebezan jesuitak, txiroen aldeko aukereagaitik martiri bihurtuta.

Abestia: Gizaki guztiok anaiak gara...

(Kantu-liburu: kanta dagigun danok, 90 zk.)

Pauloren 1. Gutuna Korintokoei 11, 17 hur. edo Joan 13, 1-15

Letania antzekoa:

Caritasen alde. Entzun, Jauna, gure eskaria.

Gizakia Helbururen alde. Entzun, Jauna, gure eskaria.

Txiroen Ahizten alde. Entzun, Jauna, gure eskaria.

Kartzela Pastoraltzaren alde. Entzun, Jauna, gure eskaria.

Osasun Pastoraltzaren alde. Entzun, Jauna, gure eskaria.

Hiesa daukien gaixoentzako egitasmoen alde. Entzun, Jauna, gure eskaria.

Banka etikoa, Fiareren alde. Entzun, Jauna, gure eskaria.

Sindikatuetao militanteen alde. Entzun, Jauna, gure eskaria.

Alderdietako militanteen alde. Entzun, Jauna, gure eskaria.

Bazterketaz jantzitako lekuetan jarduten dabenen alde. Entzun, Jauna, gure eskaria.

... Justizia eta karidadearen alde jarduten dabene beste talde edo jarduera batzuk gehitu daitezke.